

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektorean, salmentak %4,6 hazi ziren 2007ko laugarren hiruhilekoan

Datu horien arabera, 2007. urteko hazkunde nominal metatua %4,2koa izan zen.

EUSTATEk emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %4,6 igo ziren 2007ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi beraren aldean. Hazkunde nominal hau, prezioen igoeraren ondorioa kenduta, balio errealetan %2,1eko urte arteko bilakaera-tasa bihurtu da (positiboa hori ere).

Urte arteko hazkunde-tasa errealak. Euskal AE

Urtea	Hiruhilekoa	Txikizkakoa	Espezializatua	Ez-espezializ. (Azal. Ertain eta handiak)
2005	IV	0,4	0,4	0,3
2006	I	4,7	7,1	-0,5
	II	2,2	4,0	-1,6
	III	4,4	7,2	-1,2
	IV	0,4	1,4	-1,7
2007	I	2,9	3,2	2,2
	II	2,2	3,3	-0,2
	III	3,0	4,0	0,7
	IV	2,1	2,8	0,4

Iturria: EUSTAT

Txikizkako merkataritza espezializatuaren salmenta nominalak %4,5 igo ziren 2007ko laugarren hiruhilekoan, 2006ko aldi beraren aldean. Igoera nominal hori, bere azpisektore ezberdinen prezioen bilakaeraren ondorioz, %2,8ko urte arteko hazkunde tasa bihurtu zen balio errealetan.

Txikizkako merkataritza espezializatu gabea %4,9 igo zen urte honetako bigarren hiruhilekoan, balio nominaletan. Prezioen bilakaera kontuan hartuta, urte arteko tasa errealaren aldakuntza, 2006ko hiruhileko beraren aldean, %0,4an zenbatetsi zen.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko hazkundeko tasarik handiena pertsonen hornikuntzako sektoreari zegokion: %9,7ko hazkunde nominala izan zuen; eta balio errealetan ere %9,7koa. Bestelako kontsumo ondasunak, alabaina, bilakaera neurrizkoagoa izan zuten: %4,3koa urteko eurotan eta %1,8koa euro konstanteetan. Elikagaien salmentak %2,3 gehitu ziren balio nominaletan eta, ondorioz, balio errealetan %2,6 murriztu ziren. Etxearen hornikuntzarako gaien salmentak %3,8 gutxitu ziren balio nominaletan, %5,4ko gutxitzea ekarriz balio errealetan. Txikizkako merkataritza espezializatu gabea elikadura nagusi duten azpisektoreek %5,0 gehitu

zituzten urte arteko salmentak, gainerako produktuak nagusi diren azpisektoreek, aldiz, %4,1. Euro konstanteetan, %0,3 eta %1,2 gehitu ziren hurrenez hurren.

Lurralde historikoen arabera, 2007ko laugarren hiruhilekoan, txikizkako sektoreko salmenta nominaletan Bizkaiak izan zuen hazkunderik handiena, %6,3ko urte arteko gehikuntzarekin. Txikizkako merkataritza espezializatuko salmentak %7,2 hazi ziren lurralde horretan, eta espezializatu gabekoarenak, %4,6.

Arabako txikizkako merkataritzaren salmentak %3,8 gehitu ziren; merkataritza espezializatuko salmentek %4,2ko hazkundera izan zuten eta espezializatu gabekoek %3,1ekoa.

Gipuzkoak bilakaera neurrizkoagoa izan zuen txikizkako merkataritzaren salmentetan, %2,1eko gehikuntzarekin; txikizkako merkataritza espezializatuaren salmentek %0,2ko gehikuntza izan zuten eta espezializatu gabeko salmentek %6,3koa, urte arteko aldakuntza nominala kontuan hartuta betiere.

Euskal Autonomia Erkidego osoan txikizkako merkataritzaren sektorean lan egiten duten pertsonen kopurua %1,7 gehitu zen 2007. urteko laugarren hiruhilekoan, eta 2007ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

2007. URTEKO BALANTZEA

Urte honetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %4,2ko gehikuntza nominal metatua izan zuten; hau da, balio errealetan %2,5ko gehikuntza izan zuten.

Lurraldeka, Bizkaiak izan zuen urte osoko gehikuntzarik handiena (%5,1ekoa), gero Gipuzkoak (%3,2koa) eta azkenik Arabak (%2,6koa); hori guztia tasa nominaletan. Balio errealetan, aldiz, honako gehikuntzak izan zituzten hiru lurraldeek: Bizkaiak %3,5ekoa, Gipuzkoak %1,6koa eta Arabak %0,7koa.

Txikizkako merkataritza sektorean enpleguaren hazkundera %1,7koa izan zen 2007. urtean, aurreko urteko batezbestekoaren aldean. Lurraldeka honelakoa izan zen: Araban %1,4 gehitu zen, Bizkaian %1,9 eta Gipuzkoan %1,3.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. el.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp